# PUNTO LIMPIO FIJO:
# AHORA TAMBIÉN EN ARRE




Valle de Ezcabarte, junio de 2019

Estimados vecinos y vecinas,

El próximo 19 de junio, se pondrá en marcha en nuestro valle un nuevo servicio para facilitar la recogida de los residuos domésticos especiales generados en los hogares.

Se trata de un **Punto Limpio Fijo, una instalación situada en la Plaza San Román de Arre,** a la que podrás acceder, sin horarios, siempre que lo necesites.

Recuerda que los residuos domésticos especiales son aquellos que por sus características pueden representar un problema para el medio ambiente y requieren de un tratamiento especial antes de proceder a su reciclaje. Por eso, no deben depositarse, en ningún caso, en los contenedores.

Adjuntamos un folleto explicativo en el que se detallan los residuos que se deben depositar en los Puntos Limpios.

Para cualquier duda, puedes llamar al **teléfono de Atención Ciudadana 948 42 32 42,** donde atenderemos tu consulta.

Gracias por tu colaboración, que es imprescindible para construir un entorno más habitable y respetuoso con el medio ambiente.

**Pedro Lezaun Esparza**
ALCALDE-PRESIDENTE
DE EZCABARTE

**Aritz Ayesa**
PRESIDENTE DE LA MANCOMUNIDAD
DE LA COMARCA DE PAMPLONA

AYUNTAMIENTO DE EZCABARTE
EZKABARTEKO UDALA

**Mancomunidad**
**Comarca de Pamplona**
**Iruñerriko**
**Mankomunitatea**

# GARBIGUNE FINKOA:
# ORAIN BAITA ARREN ERE




Ezkabarten, 2019ko ekainean

Bizilagun agurgarriok.

Heldu den ekainaren 19n, etxebizitzetan sortzen diren hondakin bereziak biltzea errazteko zerbitzu berri bat jarriko da martxan gure ibarrean.

Hain zuzen, **garbigune finko bat izango da, Arreko San Roman plazan kokatuta egongo den instalazio bat,** eta hartara joan ahal izango zarete, ordutegirik gabe, behar duzuen guztietan.

Gogoan izan ezazue, beren ezaugarriengatik, ingurumenerako arazoa ekar dezaketen hondakinak direla etxeko hondakin bereziak eta, egokia bada, birziklatu aurretik tratamendu berezia behar dutenak. Hori dela-eta, ez dira inolaz ere edukiontzietara bota behar.

Gutun honekin batera, garbiguneetara eraman behar diren hondakinak zehazten dituen eskupaper bat doakizue.

Edonola ere, **Herritarren Arretarako Zerbitzuaren 948 42 32 42 telefono-zenbakira** deitu dezakezue, kontsultaren bat egin nahi izanez gero.

Mila esker zuen laguntzarengatik, ezinbestekoa baita bizitzeko egokiagoa den eta ingurumenerako errespetuzkoagoa den ingurune bat eraikitzeko.

**Pedro Lezaun Esparza**
EZKABARTEKO
ALKATE-PRESIDENTEA

**Aritz Ayesa**
IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEKO
LEHENDAKARIA

AYUNTAMIENTO DE EZCABARTE
EZKABARTEKO UDALA

**Mancomunidad**
**Comarca de Pamplona**
**Iruñerriko**
**Mankomunitatea**

## ¿Qué es un punto limpio?

Es una instalación destinada a recoger selectivamente los residuos especiales generados en el hogar.

**Los residuos domésticos especiales** son aquellos que por sus características pueden representar un problema para el medio ambiente y requieren de un tratamiento especial antes de proceder, en su caso, a su reciclaje. Por eso, nunca deben depositarse en los contenedores.

## En nuestra comarca hay dos tipos de puntos limpios:

**Móviles,** son vehículos que se desplazan por diferentes pueblos y barrios.

**Fijos,** son instalaciones ubicadas en los aparcamientos de los hipermercados Eroski y E.Leclerc, junto a la Casa de Cultura de Burlada y ahora también en diferentes localidades de la Comarca.




**6 NUEVOS PUNTOS LIMPIOS FIJOS UBICADOS EN:**




## ¿Cuáles son los residuos domésticos especiales?

**Productos de pintura:** Tubos y botes de pintura, disolventes y decapantes.

**Productos especiales:** Fluorescentes, Aceite de freír, Pilas, Aerosoles, Ceras y barnices, Productos de limpieza, Fitosanitarios, Medicamentos, Radiografías, Líquidos de fotografía.

**Productos del automóvil:** Aceites, Baterías, Filtros, Anticongelantes, Otros fluidos

**Otros:** Pequeños electrodomésticos (batidoras, ordenadores...), Juguetes, Ropa, CDs, toners y tintas.

## Y recuerda...



**Los voluminosos*** (objetos de procedencia doméstica como colchones, electrodomésticos, sofás y otros enseres) **no deben abandonarse ni en la calle, ni en el campo, ni en las inmediaciones de los contenedores, o puntos limpios fijos.** Al igual que el resto de residuos deben gestionarse de una forma diferenciada para facilitar su reutilización, reparación, recuperación o reciclaje.

- **Recogida gratuita** desde el propio domicilio.
- Solicitar la recogida llamando al **948 302 898,** con horario de atención telefónica de lunes a viernes de 8:00 a 20:30h y los sábados de 8:00 a 14:00h, y servicio de contestador con devolución de llamada.
- Se atenderá la recogida durante los 10 días siguientes al aviso, en horario de 8 a 20h de lunes a viernes (previa llamada telefónica media hora antes de la llegada).
- Es necesario indicar con detalle el número y tipo de objeto a retirar para organizar de forma eficiente la ocupación del vehículo.

** Su peso y volumen nunca deben superar lo que pueda ser manejado por dos personas.*



# ORAIN **GARBIGUNE FINKO** BAT ZUREGANDIK GERTUAGO

LG NA 1384-2019

WWW.MCP.ES
948 42 32 42

Mancomunidad Comarca de Pamplona
Iruñerriko Mankomunitatea

## Zer da garbigune bat?

Etxebizitzetan sortutako hondakin bereziak gaika biltzera bideratutako instalazio bat da. Beren ezaugarriengatik, ingurumenerako arazoa ekar dezaketen hondakinak dira **etxeko hondakin bereziak** eta, egokia bada, birziklatu aurretik tratamendu berezia behar dutenak. Hori dela-eta, ez dira inolaz ere edukiontzietara bota behar.

## Gure eskualdean, bi motatako garbiguneak ditugu:

**Mugikorrak.** Herri eta auzo desberdinetara joaten diren ibilgailuak dira.

**Finkoak.** Eroski eta E. Leclerc hipermerkatuen aparkalekuetan, Burlatako kultura-etxearen ondoan eta orain baita Iruñerriko zenbait herritan ere kokatuta dauden instalazioak dira.



**6 GARBIGUNE FINKO GEHIAGO, HERRI HAUETAN:**




## Zein dira etxeko hondakin bereziak?

**Pintura-produktuak:** pintura-tuboak eta ontziak, disolbatzaileak eta dekapatzaileak.

**Produktu bereziak:** fluoreszenteak, frijitzeko olioa, pilak, aerosolak, argizariak eta bernizak, garbigarriak, fitosanitarioak, sendagaiak, erradiografiak, argazkilaritzako likidoak.

**Automobiletarako produktuak:** olioak, bateriak, iragazkiak, izotz-kontrakoak, beste fluido batzuk.

**Beste batzuk:** etxetresna elektriko txikiak (irabiagailuak, ordenagailuak...), jostailuak, arropa, CDak, tonerrak eta tintak.

## Eta gogoan izan...

**Tamaina handikoak*** (etxeetako objektu handiak, hala nola, koltxoiak, etxetresna elektrikoak, sofak eta beste tresna batzuk) ez dira utzi behar kalean, landan, edukiontzien inguruetan edo garbigune finkoetan. Gainerako hondakinak bezala, bereiz kudeatu behar dira, berrerabiltzea, konpontzea, berreskuratzea edo birziklatzea errazteko.



- **Doako bilketa,** etxebizitzan bertan.
- **948 302 898** telefono-zenbakira deituta eskatu behar da bilketa. Telefono-arreta emateko ordutegia astelehenetik ostiralera 08:00etatik 20:30erakoa eta larunbatetan 08:00etatik 14:00etarakoa da. Eta erantzungailu-zerbitzua dago (deia itzultzen da).
- Abisua jaso ondorengo 10 egunen barnean egiten da bilketa, 08:00etatik 20:00etara, astelehenetik ostiralera (telefono-deia egiten da iritsi baino ordu erdi lehenago).
- Zehatz adierazi behar da bildu behar diren gauzen kopurua eta mota, ibilgailuaren edukiera era eraginkorrean antolatzeko.

** Pisuak eta bolumenak ezin dute gainditu inoiz bi pertsonak maneiatu ahal dutena.*

DL NA 1384-2019



# AHORA UN **PUNTO LIMPIO FIJO** MÁS CERCA DE TI

WWW.MCP.ES
948 42 32 42

Mancomunidad Comarca de Pamplona
Iruñerriko Mankomunitatea